

# ***Ingurumen Buletina***

- 1. COP21: Parisko Akordioa engainua da***
- 2. 2016ko aurrekontuak bidegabekeriaz beteta***
- 3. Garoña, berriro ere martxan?***
- 4. Hondakinen kudeaketak Gipuzkoan 180 graduko bira***
- 5. Alternatiben Herria: eskerrik asko guztioi!***

## **1. COP21: Parisko Akordioa engainua da**

### Aurrekariak

Aurreko asteetan publiko egin genuen COP21aren aurrean ELAk zuen jarrera. Batetik, esperantzarik eza, eta bestetik gure aldarrikapen nagusiak:

- 2020rako berotegi efektuko gasen murrizketak %25 eta %40 artean egon behar dute, 2100ean planetaren beroketa 2 gradutara iritsi ez dadin. 2050rako emisioen %80a murriztu behar da.

- Energia fosilak dira emisioen iturri nagusia. Beharrezkoak diren emisio murrizketa egiteko petrolio, gas eta ikatz erreserben bi heren lur azpian geratu behar dira. Energia trantsiziorako pausuak ematea ezinbestekoa da, energia berriztagarrietan oinarrituta eta energia nuklearra behin betiko baztertuta.

- Klima aldaketa eragitean herrialde bakoitzak izan duen ardura berezitu eta aitortu behar da, eta honen arabera klima aldaketaren eraginei aurre egiteko baliabiderik ez duten herrialdeei finantzatzeko funtsera ekarpenak egin behar dituzte.

- Klima aldaketari aurre egiteko saltzen dizkiguten soluzio faltsuak albo batera utzi behar dira: karbono emisioen merkatua, REDD programak, geoingeniaritza,

agroerregaiak, frackinga, energia nuklearra, transgenikoak,... Eta naturako baliabideen pribatizazio ahaleginak behin betiko geldiarazi.

- Pertsona eta bizitzaren iraunkortasuna erdigunean izango duen ekonomia eredu berri bat izateko trantsizio ekologiko eta sozialerako pausuak eman behar dira. Baliabide naturalen erabilera eraginkor eta iraunkorra, kontsumo arduratsua, hondakinen kudeaketa iraunkorra eta pertsonen eskubideetan oinarrituko den ereduak da egoera honi buelta emateko alternatiba bakarra.

### Parisko akordioa: edukia eta balorazioa

Orain, Parisko Akordioa sinatu denean, esan behar dugu aurten ere zoritxarrez gure aurreikuspenak bete direla. Parisko Akordioaren bozketaren irudiak ikusirik, batzuk emozioz negarrez ageri direnean, badirudi azkenean sinatu dutela behar dugun akordio lotesle eta anbiziotsua. Errealitate oso urrun, tamalez. Edukia ikusirik, ondorengo azpimarratu nahi dugu:

- Akordioak ez du emisio murrizketarik jasotzen, ez orokorrik, ez herrialde bakoitzak egin beharrekorik. Hurrengo hilabetetan falta diren herrialdeek murrizketa "ekarpenak" jakinarazi behar dituzte. Lehen murrizketa

konpromisoak, lotesleak zirenak, orain murrizketa ekarpen bihurtu dira, borondatezkoak. Eta orain arte ezagutzen ditugunak kontuan hartuz, planetaren tenperatura 3 gradu igoko litzateke. Egin beharreko murrizketen %20a soilik dira. Eta inongo kasuan ez dira lotesleak, borondatezkoak dira. Ez dago zigorrik ezartzeko inongo mekanismorik. Akordioak berak onartzen du ekarpen hauekin ez direla helburuak beteko. Bestalde, orain arte 2015 urtea aipatzen zen emisioen gailurrera iristeko epea, orain ordea ahalik eta azkarren iristea dela helburua aipatzen dute; beste atzerapauso oso larri bat.

- Murrizketen ekarpenak bost urtero errebisatuko dira. 2020an indarrean sartuko dira lehen ekarpenak eta lehen errebisioa 2023an egingo da. Ez dakigu 8 urte barru zer eta nola errebisatuko den, ez baita ezer derrigorrezkorik. Ez aipatutako ekarpenak betetzea, ez eta ekarpen horiek gehiago murriztuz berritzea.

- Ez da energia fosila murriztu eta energia berriztagarriak orokortzeko aipamenik egiten. Energia hitza bi aldiz agertzen da testuan, horietako bat energia berriztagarriei eta Afrikari erreferentzia eginez, arlo hau gainontzeko herrialdeek garatu behar ez

balute bezala. Energia fosilak ez dira aipatu ere egiten. Bestalde, kontraesankorra da guztiz COP hauetan lehengai eta energia iturrien esplotazioaren mugak eta babes beharrak aipatzea, beste negoziazio sekretu batzuetan, TTIPen ingurukoan hain zuzen, lehengaien eta energia iturrien merkatuei muga guztiak deuseztatzen ari diren bitartean. Eta lotesleak diren akordioetan, gainera.

- Herrialdeen arteko ezberdintasuna aitortzen da hainbat gaietan. Baina finantziazioari dagokionez, ez da inongo diru kantitaterik jartzen ez eta exijitzen. Ahalegin handiagoa egin behar dela aipatzen da soilik, esan gabe herrialde bakoitzak zenbat ditu jarri behar dituen. Adierazpenean orain arteko helburua, urtero 100.000 milioi dolar, aipatzen da baina ez dira akordioan sinatzen.

- Soluzio faltsuetarako bidea irekitzen jarraitzen du. Garapen iraunkorrerako proiektuak bultzatuz murrizketak kontatzea ahalbidetzeko mekanismoa hartzen du bere baitan akordioak, lehen Kiotoko protokoloan garapen garbirako mekanismo bezala ezagutzen zirenak. Karbono merkatuek ere aurrera jarraituko dute. Emisioen murrizketak aipatzerakoan karbono hobiak mantentzearekin osatzen dute, honek

karbonoaren lurrazpiratzea eta geoingenieriaren proiektu bidegabeei atea irekitzen die.

- Pertsonak zentruan jartzea ere exijitzen dugu ELAn, ez bakarrik ekonomian, baita edozein erabaki politiko hartzerakoan ere. Adostutako testuan pertsonen eta komunitateen eskubideen inguruan behin eta berriro hitz egiten den arren, ez da neurri bat bera ere proposatzeko, sarrera gisa soilik, polita geratzen da eta. Oso esanguratsua da ama lurra edo justizia klimatikoa aipatzen dituen paragrafoa, batzuentzat garrantzitsuak diren kontzeptu gisa definitzen baititu. Horra hor akordioaren sinatzaileek duten balore faltaren erakusleeta bat.

- Akordio hau 2020an sartuko da indarrean, eta ordurako paperean jarri dituzten intentzio guzti hauek neurri zehatzez bete beharko dituzte. 2020 nahiko berandu da jada, eta are gehiago neurriak hartuko diren ziurtasunik ez badago.

Hau horrela izanik, ez dugu ulertzen non ikusten ari diren Parisko Akordioaren aurrerapena eta miraria. Iruzurra izan da COP goibilera hauen dinamika beti izan da "aurten ez baina hurrengo urtean lortuko dugu" esatea. Eta Pariskoa ere aurreko

urteetako akordio guztien berdina izan da, hitz politez beteriko testua, baina beste porrot bat. Ez du bere baitan neurri loteslerik hartzen, eta dena herrialdeen borondatearen esku uzten du. Eta beste bost urte itxaron behar benetako neurriak ezagutzeko, baldin eta egongo badira. 2020a izango omen da orain benetako abiapuntua.

Gaur jada berandu bada, zer esanik ez 2020, edo lehen errebisioa egingo den 2023a. Gizateriaren kontrako krimena da. Benetako bidea ez da COP goibilerek irudikatzen dutena. ELAk sistema aldatzeko beharra, ez klima, azpimarratzen du horretarako bi ardatz jarraituz:

- Batetik, tokian tokiko alternatibak sortu eta garatzea, eskualde mailakoak, lehengaien eta pertsonen mugikortasuna eta energia beharrak murriztuko dituztenak, eta benetan bizi iraunkorrago bat eraikitze behar ditugunak. Alternatibek Herrian ikusi genuen jada errealitatea direla. ELAk ere baditu alternatibak, gure proposamena enplegu berdeena da, kalitatezko enplegua eta klima aldaketa murrizteko eraginkorra.

- Eta noski mobilizatzen jarraitzea, hori baita bidearen beste ardatza. Ez dugu gure aldarrikapenetan etsiko, gobernuari eta enpresa handiei presio egiten jarraituko

dugu, benetan beharrezkoak diren politikak egin eta betearazteko.

## **2. EAEko eta Nafarroako 2016rako aurrekontuak bidegabekeriak beteta**

Azpiegitura handiei loturiko bidegabekeriak dagoeneko klasiko bat dira EAEko, Nafarroako eta Foru Aldundietako aurrekontuetan.

AHTak errentagarritasun ekonomiko eta sozialik ez duela frogatuta dagoenean, Eusko Jaurlaritzak aurten ere izugarrizko dirutza bideratu du proiektu honetara, 350 milioi euro, ingurumen saileko aurrekontuaren %52. Nafarroako gobernuak onartuko dituen aurrekontuetan ere, badaude AHTarentzat partidak. Bat Euskal Y delakoarekin lotura aztertzeke, eta bestea Iruñean geltoki berri baten aukera urbanistikoak aztertzeke. Iruñerriko AHT ibilbidearen ingurumen deklarazioa iraungita dago, beraz ibildide berriaren prozesua zerotik hasi beharko litzateke, hau horrela izanik, ez du zentzurik Etxabakoitzen geltoki berri bat egiteko azterketak egitea. Baldin eta ez bada proiektu berri horretan sartu nahi diren milaka etxebizitza berriengatik. Proiektu hau UPNren gobernuarena zen, eta irregulartasun asko zituen. Baina gobernu

berriak proiektuarekin jarraitu nahi du. Non da behin eta berriro aipatzen duten aldaketa?

EAEko aurrekontuan, frackingarentzat ere badago dirua. Inungo errentagarritasun ekonomiko eta sozialik ez duen proiektua. Ingurumen kalteak eta klima aldaketa eragiten dituena hau ere. Lehendakaria eta Ingurumen Sailburua Parisko Klimaren inguruko goibileran egon dira klima aldaketaren kontrako borrokan punta puntan daudela esanez, eta bitartean EAEn frackinga errealitate egiteko azterketara 161.000 euro bideatuko dituzte. Azterketa honen eduki batzuk ezagutu ditugu iada, eta sinestezina badirudi ere EAEn frackingaren inguruan dugun lege bakarra ez du aipatu ere egiten indarrean dagoen legedia aztertzen duen atalean. Frackinga ia ezinezko egiten duen lege hau ekainean onartu zen parlamentuan. Lege hau bultzatzeko ILPan ELAk ere parte hartu zuen.

Azpiegitura hauek egin aurretik azterketa zorrotzak egin behar dira eta ez da nahikoa gure ideologiarekin bat etortzea. Azpiegitura hauek errentagarriak ere izan behar dira. Baina errentagarritasun mota asko daude, eta garrantzitsuena ez da errentagarritasun ekonomikoa. Errentagarritasun soziala ezinbestekoa da,

hau da, erabilera soziala izateaz gain kalitatezko lanpostuak sortzen dituen, ingurumen iraunkorra bermatu eta ekonomikoki gastu sozialaren murrizketarik eragingo ez duena.

### **3. Garoña, berriro ere martxan?**

Garoiako zentral nuklearraren jarduera, ofizialki geratuta dago 2013tik. Baina azken asteetan oso berri kezagarriak datozkigu. Batetik Ingurumen Ministerioak Garoñan hondakin erradiaktiboentzako biltegia egiteko baimena eman dio Nuclenor enpresari (Iberdrola eta Endesarena da), zentrolean bertan sortutako hondakin erradiaktiboak biltegiratzeko. Bestetik enpresari exijitu zitzaizkion zentralaren hobetze lanei oneritzia eman zaiela, berriro irekitzeko bidea zabalduz.

Villar de Cañas (Cuenca) herrian egitekoak ziren hondakin erradiaktiboentzako biltegiaren proiektua bertan behera utzi du Gaztela Mantxako gobernuak eta honek ondorioak izango ditu Garoñan ere. Estatuko hondakin erradiaktibo guztiak Villar de Cañasen zentralizatzea zen asmoa, baina orain beste irtenbide bat behar dute. Garoñaren jarduera geldirik egon arren, eta bere desmantelazioa aldarrikapen

ozena izan arren, gobernuak hondakinak bertan biltegiratzeko baimena eman dio Nuclenorri. Hondakinak zentralizatzeko gunea zein izango den argitu bitartean, Garoñan bertan geldituko dira hondakin hauek.

Gobernuaren mugimendu honetan intentzio eta arrisku handiak ikusten ditugu. Batetik Garoña berriro ere martxan jartzeko intentzioa, ez baita behin betiko itxierarik eman. Bestetik, 2013tik jarduera geldirik egon arren, arriskua ez da desagertu. Erregai eta hondakin erradiaktiboak ditugu etxe ondoan eta desmantelazio osoa eman arte ez gara arrisku erradiaktibotik libre geratuko.

ELAn behin eta berriro egiten dugu aldarrikapen bera, energia nuklearra eta fosila alde batera utzi eta berriztagarriak diren energia iturrietan oinarritutako energia eredu bat behar dugula. Orain, Klima Aldaketaren Goibileraren ahotsa denon ahotsa dabilenean, trantsizioa hau egitea ezinbestekoa dela aldarrikatzen dugu berriro ere. Bada garaia benetako energia eredu berriztagarria bultzatzeko eta zentral nuklearrak betirako itxitzeko.

### **4. Hondakinen kudeaketak Gipuzkoan 180 graduko bira**

Maiatzean egin ziren foru

hauteskundeen ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundia Bilduren eskuetatik EAJren eskuetara pasa da. Honek hainbat politiketan aldaketak ekarriko ditu baina batez ere azken lau urteetan gobernua eta oposizioaren artean liskar nagusietako bat izan den hondakinen politikan.

Lehen aldaketa udaletan eman zen, ondorioz baita mankomunitateetan. Aldaketa hauen beste ondorioetako bat Gipuzkoako Hondakinen Kontsorzioan eman zen, mankomunitateek osatzen baitute eta Bilduk gehiengoa izatetik PNV eta PSEk gehiengoa izatera pasa zen. Hiru administrazio hauek dira hondakinen kudeaketa eramaten dutenak, beraz norabide aldaketa bat eman da. Honi gehitu behar zaio egungo gobernuak Hondakinen Plangintza, aurreko legealdian Bilduk egina, ez duela aurrera eramango. Plangintza honek bi oinarri zituen, batetik erraustegia bertan behera uztea, eta bestetik zero zabor bidean beharrezkoak ziren azpiegiturak eraikitzea (konposta egiteko plantak, Zubietako hondakin ezberdinak tratatzeko azpiegitura, TMB planta edo hondakinak jatorrian modu selektiboan jasotzeko sistemak bultzatzea). Guzti hau bertan behera geldituko da. Beraz, hondakinen

kudeaketak Gipuzkoan 180 graduko bira emango du.

Izatez, iada ikusten ari gara aldaketa hauek. Lehen pausua 2016ko aurrekontuetan eman dute PNV eta PSEk. Hurrengo lau urteetan hondakinen kudeaketara 80 milioi euro inguru zuzentzea aurrirakusten dute. Kanpainen bertan esan zuten beraien helburua erraustegiaren proiektua berriro martxan jartzea zela, eta horrela isladatu dute aurrekontuetan. 80 milioi inbertitzea ongi egongo litzateke, baldin eta azpiegitura horiek zero zabor helburura iristeko azpiegiturak balira eta tokian tokiko kalitatezko lanpostuak sortuko balira. Baina erraustegi bat eraikitzeke dira, ez ekonomikoki ez sozialki errentagarritasunik ez duena, eta ingurumenean eta osasunean kalte izugarriak eragingo dituen.

Honetaz gain udalerrietan ere aldaketak emango dira, batez ere aurretik ezarrita dauden hondakinen bilketa selektiboa egiteko sistemen aldaketan. Pasaian eta Lazkaon atez atekoa kendu eta edukiontziak jarri dituzte berriro. Aldaketa bera egitekotan ari dira Tolosan, Villabonan eta Zestoan. Legazpin, Ordizian, Lezon, Astigarragan eta Aretxabaletan berriz, galdeketa egingo dute sistema aldaketa nahi

den galdetzeko. Bergara eta Eskoriatzan ere egin dira galdeketak sistema aldatzeko, eta edukiontzien sistemara bueltatzea erabaki dute.

Hilabete gutxi behar izan dira hondakinen bilketan emandako aurrerapenak atzera botatzeko, berriro ere birziklapen tasaetan behera egingo dugu. Ea hurrengo datuak ematen direnean nola justifikatzen duten.

### **5. Alternatiben Herria. Eskerrik asko guztioi!!**

Urriaren 24an Alternatiben Herria ospatu genuen Bilbon, aurreko hilabeteetan behin eta berriro azaldu genuen zer izan nahi zuen egunak. Alternatibak ditugula aldarrikatzeko, ospatzeko eta hausnarketa egiteko eguna izan zen. Eta guztioi eskerrak, benetan, arrakasta izugarria izan baitzen. [Hemen dituzue eguneko irudiak.](#)